

Teresa Murga, izenaren o

Teresa Murga Markinan bizi zela jakin nuenean, ezagutzeko gogo bizia sartu zitzaidan.

Ikaragarria Bizkaiko leinu eta etxejauntza esanguratsuenak bere abizenetan eta odolean daraman andra honen memoria historikoa; interesgarriak oso eta plazerrez beteta berakin emandako arratsaldepasak.

Ermuarroi bere izena ez zaigu arrotza egiten, sasoi bateko eskolak eta gaur egun liburutegi den erai-kinak bere izena darama eta: María Teresa de Murga y Mugartegi. Eskolak altxatu ziren orubearen eta aldamenen dagoen Lomiñokua jauregiaren jabea zen; salmenta sinatzerakoan, bere anaiak Teresaren izena ipintzea proposatu eta onartua izan zen.

Torre Bidarte. Markinako Zelaiaren muturretako baten, etxe koadro edar bat, lorategi zoragarri batek inguratuta-koa. Txoko guztietan etxe onaren usaina antzematen da: egoteko eta harrera egiteko gelatxo ugari, lorategira zabalduta-ko galeria, egurrezko armairuan egokitu-tako oratorio zoragarria... Hormetan ge-ro arbasoen erretratuak, euretatik asko Bizkaiko historian zeresana euki dute-nak. Hantxe bizi da Ana María bere ahiz-pa nagusiarekin eta honen alaba María-ekin. Gure harriurarako 95 urte ditu, sei egiteko urriaren 14an. Gazteñe da-go, nahiz eta berak motelduta ikusi bere

burua, orain gutxirarte "eper baten pa-re, bizkorrita, bizkorrita!" ibili delako.

Orain dela gutxitik Markinako udale-txea den Solartekua jauregian jaio zen, alkate izandako aitxitxa Federico Muga-tegiren etxe hartan; haren arrimora eman zuen bere ia ume aro gehiena, zo-rioritsu eta ardura barik. Eta halantxek gogoratu ere egiten du: "Sasoi horretako gogorapen zoragarriak ditut. Zuhaitze-tara igotea ikaragarri gustatzen zitzai-dan eta, Mugartegitarren etxean mada-ri-arbola batek zekan zulauna baten ni-re panpinen etxea egin nuen. Handik goitik mundua ikustea zen nire jolasik maitatuena! Topatzen nituen trapu eta txapino guztiak, denak balio zidaten kurtinak ipini eta jolasean ibiltzeko, za-baldu kurtiniori, itxi, zetozen lagunekin koruak egin eta kantuan ekin, kamisoie-kin mozorrotu... Jolasak asmatzen be-ti!". Markinako bere ume denporak koa-derno baten idatziz jasotzen dihardu, plazer haundiz gogoratzen dituelako or-duko olgetak: "lagun asko nituen eta



'tres navios en el mar' eta 'trukume'ra ibiltzen ginen kalean. Abarketetara, eu-ren zintekin, karrete batzuk lotu eta za-pata takoiak genituela imajinatzen ge-nuen... Egun osoa mozorrotuta!". Sasoi haretakoak birgogoratzea dibertigarria egiten zaiola eta espresibitatez betetzen zaio aurpegia akordura ekarriz ordukoak: "ez nuen jaitxorik galtzen, peontza ba-



URRETA

burdindenda

* Etxea

* Tresneria

* Brikolaia


* Rielak

* Giltzak

* Zerrailgintza

* Kit altzariak

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA



ESTETIKA-EDERGINTZA

- Depilazioa
- Elektrologia
- Gorputz eta Aurpegirako tratamenduak
- Masajeak
- Pedikura
- Manikura (parafinarekin)
- Solariuma

Aldapa 1 943 17 60 52



KRABI

Peluquería Estética

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA



LEIRE MAYORA

PODOLOGOA

San Pelaio 8C, behea
48260 Ermua
© 943 17 47 44

steako anderea

ten modura dantzan beti. Ez nintzen geratzen!”.

Kontatzen digu, basati xamar ikusten zutela, eta nola 13 urtekin Gasteizko urtsulinen ikastetxean interna sartzeko erabakia hartu zuten gurasoek. Han ere ez zen geldik egoteko prendia. Bere jakinminak eta egonezinak saltsa guztietan sartuta egotera eramaten zuen, “kapitaneatzen, noski!” barrezka aitortzen digun bezala. Ikasle ona izan zen, esanekoa, eta han ere lagun ugari egin zituen. Amaitu eskolok eta bidaiatzeko pribilegioa izan zuen, etxetik kanpora denboraldi luzeak eginez. “Bizitza atsegina izan dut, bai horixe!” errepikatuko zigun pare bat aldiz.

Aita, José María, diputatua izan ostean, Bizkaiko Diputazioko lehendakari izendatua izan zen. Bere agindupean eraiki ziren auzoetako eskolak eta lan haundia egin zuen erreka-errepoblatze kontuetan. 1915. urtean politika mundutik aldendu eta etxearen administrazioa eramatera zentratu zen. Liburu bat ere idatzi zuen, Andonaegi familiaren gainekoa eta Teresa alabari irakurtzeko grina sartu zion bezala, ama Carmen izan zen ahozko transmisioaren ardura izan zuena: “ama jakintza altxor bat zen eta, hil zenean, liburu interesgarri baino interesgarriagoa itxi zitzaidan”.

Hiltzeran, José Luis Torres-Vildosola bere aitabesoetakoak bere izenean laga zituen Ermua, Zaldibar eta Mallabiko ondasunak, bere iritziz “oso patrimonio



Gaur egun Teresa Murga Markinako Torre Bidarte etxean bizi da.

polita izandakoa, baina ez behar den moduan eramana”. Murga zein Mugartegitarak etxejauntza gogorak izan ziren, baina “ondasunak partitzen joan eta gutxitza egin du. Bestalde, etxebizitza duin baten eskubidea dela eta, jabetzarako lorpidearen legea errenteroaren alde atera zen; guk gurea zena ezin genuen defendatu eta baserri asko saltzera behartuak izan ginen”, dinosku Teresa. Ondarea mantentzeko, esijentzia asko eta laguntasun gutxi ematen dituztela aipatzen digu eta sarritan lau txakur haundiren truke saldu behar izan dituztela. Baina bere esanetan, horrelakoei alde ekonomikoa baino sentimentalak indar haundiagoa du: “tristura infini-

to bat sentitzen duzu, aurrekoengandik etorri zaizun zerbait kontserbatzerik ez duzunean”. Torre Bidarte izan da familiaren gauza guztien gordeleku, “hona etorri ziren saldutako gainontzeko etxetako gauza guztiak. Gu hemen gaude, familiaren historia gordetzen duten altzairu, liburu eta oroigarri guztiak kariñu ikaragarriarekin kontserbatzeko ahalginetan”.

Zeozerren harira “fantastika itzela eta erromantika negargarri bat” zela esan zigun. Berak, bere etxeak eta familiaren historiak dakarren erromantizismoaz gozatzeko aukera izatea, hori bai izan dela fantastikoa!

Estibalitz González

Harategia



M. LAZKANO

BERTOKO OKELAK
Geure Baserrian
Hazitako Txalak

GEUK GIZENDUTAKO

ABELTZANTZA

Merkatua, 36-37 zbk.k

Tfnoa. 943 17 05 84

Ermua

OPTICA J. CASADO




Lenteak
Audifonoak
Graduatutako Antiajuak
Eguzkitako Antiajuak

Kantabria, 2
Tfnoa. 17 33 57

ERMUA

MIGUEL Harategia



TXORIZOAK
ODOLOSTEAK


Probaleku, 3

☎ 17 05 63

ERMUA
(Bizkaia)

Hamburguesería

TITANIC



Kantabria 2
Tlf: 17 67 83